Herriko plaza 1, Udaletxe aurreko plaza.

Herriko plaza 1, frente al ayuntamiento



Urriaren 5ean eta 22an 18:30ean.

15 y 22 de octubre a las 18:30

Antolatzaile / Organiza: Goikolau Kultur elkarte



946137030 - <https://ondareabizkaia.eus>



ZUHAITZ DOINUTAN

Bisitaldi gidatua

Zuhaitz orok bere ezaugarri biologikoak, sinbolismoa eta istorioa gordetzen ditu bere baitan. Mendeetan zehar, gizakiok babesa, itzala, elikagaiak, materiala eta balio apaingarria aurkitu ditugu arboletan. Ibilbide gidatu honetan, hainbat zuhaitz-espezierengana hurbilduko gara zuzeneko musika eta bertsoen bitartez. Inguratzen gaituen natura ezagutzeko modu benetan atsegina.

MELODÍAS DE ÁRBOL

Visita guiada

Todo árbol guarda en su seno unas características biológicas propias, un simbolismo y una historia. A lo largo de los siglos, las personas hemos encontrado en los árboles protección, sombra, alimentos, materiales y un valor decorativo. En esta visita guiada, nos acercaremos a diferentes especies arbóreas por medio de música y versos en directo. Un modo realmente agradable de conocer la naturaleza que nos rodea.



Euskara

Euskera



Berrizko Udaletxea

Ayuntamiento de Berriz



Urriaren 22an -larunbata-, 12:00etan

Sábado 22 de octubre, a las 12:00

Antolatzaile / Organiza: Berrizko Udala, Gerediaga elkarte eta Umerri eskola aktiboa - Ayuntamiento de Berriz, Gerediaga elkarte eta Umerri eskola aktiboa



673005981; ejardunaldiak@gmail.com - <https://ondareabizkaia.eus>

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas



ANIZTASUN GOZOA

Topaketa/ Erakusketa/ Hizketaldia

Urriaren 22an, 11:00etatik 13:00etara

Bilboko lehengo eta oraingo San Frantzisko auzoari buruzko argazkien erakusketa. Elkartegune kulturazintza da, non auzoaren beraren begiradak eta auzoari egindakoak islatzen diren. Harreman-kapitala eta elkarbizitza: nola susta ditzakegu auzoko askotariko harremanak, konfrontazio-gunea baino, elkarbizitzakoa sortzeko, tradizio eta kultura ezberdinak errespetatuta? Zer eskatzen diogu besteari? Hibridazio kulturalerantzko joera: zenbat hizkuntza mintzatzen da auzoan?, eta zenbat biztanlek hitz egiten dituzte?

Urriaren 22an, 17:00etatik 19:00etara

Partekatze gunea: multikulturalismo, kultura-aniztasun, transkulturalitate eta kulturartekotasunaren adibideak. Giza liburutegiak elkar ulertzeko formula gisa. Hainbat liderrekin elkartuko gara kafe baten inguruan, gizarteratzea ahalbidetuko duen gunea sortuta, kultura minoritarioen nortasun prozesua alde batera utzi gabe.

Urriaren 23an, 11:00etatik 13:00etara

Musika & Kultura-aniztasuna: musikaren bidez, San Frantzisko auzoko kultura ezberdinak ordezkatuta egongo dira gune horretan.

ANIZTASUN GOZOA

Encuentro/ Exposición/ Coloquio

22 de octubre, de 11:00 a 13:00

Exposición de fotografías del barrio de San Francisco (Bilbao) antes y ahora. Punto de encuentro multicultural, donde se reflejen las distintas miradas del y al barrio. Capital relacional y coexistencia: cómo podemos potenciar las relaciones diversas del barrio, para no crear un espacio de confrontación, sino de coexistencia, respetando las diferentes tradiciones y culturas. ¿Qué le pedimos al otro? Tendencia hacia la hibridación cultural: ¿Cuántos idiomas se hablan en el barrio? ¿y cuánta población los habla?

22 de octubre, de 17:00 a 19:00

Espacio de compartir: ejemplos de multiculturismos, pluriculturalidad, transculturalidad e interculturalidad. Bibliotecas humanas como fórmula para entendernos. Encuentro con los distintos líderes en torno a un café creando un espacio que permita la integración, sin sacrificar el proceso de identidad de las culturas minoritarias.

23 de octubre, de 11:00 a 13:00

Música & Multiculturalidad: Espacio, donde a través de la música, queden representadas las diferentes culturas del barrio de San Francisco.

	Gaztelania	Castellano
	ON JAN, San Luis meategiaren kalea 12, etxabea.	ON JAN - Mina San Luis kalea 12
	Urriaren 22an eta 23an. 2022/10/22an, 11:00etatik 13:00etara. SAN FRANTZISKO AUZOAK BIRPENTSATZEN. 2022/10/22an, 17:00etatik 19:00etara. TEA & KAFEAK. 2022/10/23an, 11:00etatik 13:00etara. Musikaren soinuaren eskutik auzoa aktibatzen.	22 y 23 octubre: 11:00 - 13:00. REPENSANDO EL BARRIO DE SAN FRANCISCO. 22/10/2022 17:00 - 19:00. TE & CAFÉ. 23/10/2022 11:00 - 13:00. Activando el barrio con el sonido de la música.
Antolatzaile / Organiza: AGIANTZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN AGIANTZA.		
	944166623 - https://ondareabizkaia.eus	



EGIPTO BILBON. TUTANKHAMONEN HILOBIA AURKITU ZENEO MEDEURRENAREN HARIRA.

Erakusketa

José Palacio Olabarriak bildutako Egiptoko piezen bildumatxoaren erakusketa. Haren alargun Maria Arechavaleta Anchustegui Bilboko Euskal Museoari eman zizkion piezak, 1953an. Bilduma Parisen erosi zen, eta XX. mendeko Europako arkeologiaren izaera kolonialari buruz gogoeta kritikoa egiteko baliagarria izango zaigu: arkeologia-era hark munduko hainbat kulturak beren historia egiteko eskubidea usurpatzen lagundu zuen, Mendebaldetik eraikitako lehenaldiaren kontakizuna inposatu baitzitzairen.

EGIPTO EN BILBAO. A PROPÓSITO DEL CENTENARIO DEL DESCUBRIMIENTO DE LA TUMBA DE TUTANKHAMON

Exposición

Exposición de una pequeña colección de piezas egipcias formada por José Palacio Olabarria y donada por su viuda Maria Arechavaleta Anchustegui en 1953 al Museo Histórico de Bilbao (Euskal Museoa). La colección, adquirida en París por compra, nos sirve para hacer una reflexión crítica sobre la naturaleza colonial de la arqueología europea del siglo XX, que contribuyó a la usurpación del derecho de las diferentes culturas del planeta a hacer su historia, imponiéndoles un relato del pasado construido desde Occidente.



Euskara - Gaztelania



Arkeologi Museoa- Mallona galtzadak, 3



Urriaren 13tik 2023ko urtarrilaren 8ra

Antolatzaile / Organiza: Arkeologi Museoa



944040990; <https://ondareabizkaia.eus>

Euskera - Castellano

Arkeologi Museoa- Calzadas de Mallona, 3

del 13 octubre al 8 enero de 2023



	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Ondare Aretoa. María Díaz de Haro, 11. 1º	Ondare Aretoa. Maria Diaz de Haro, 11. 1º.
	Urriaren 20an, 19:30ean	20 de octubre a las 19:30
Antolatzaile / Organiza: Arkeologi Museoa		
	94 4040990; arkeologimuseoa@bizkaia.eus - https://ondareabizkaia.eus	
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas		

ZER-NOLAKO ARKEOLOGIA NAHI DUGU XXI. MENDERAKO? INDARKERIA KOLONIALETIK ERATORRITAKO ZIENTZARI BEGIRADA KRITIKO BAT

Hitzaldia

Agustin Azkaratek (Arkeologian katedraduna eta UPV/EHUko kultura-paisaien Unesco katedrako zuzendaria) emango duen hitzaldian- Tutankhamonen hilobiaren aurkikuntzaren ehungarren urteurrenean- arkeologiaren jatorri kolonial eta elitistari buruz hausnartu egingo da. Balore barneratzaile, berdinzale eta kritikoagoak behar dituen mundu batean arkeologia ulertzeko eta, batez ere, jarduteko bestelako moduak proposatuko dira.

¿QUÉ ARQUEOLOGÍA QUEREMOS PARA EL SIGLO XXI? UNA MIRADA CRÍTICA A UNA DISCIPLINA NACIDA DE LA VIOLENCIA COLONIAL

Conferencia

El catedrático de Arqueología y director de la cátedra Unesco de paisajes culturales de la UPV/EHU, Agustín Azkarate reflexionará -en el centenario del descubrimiento de la tumba de Tutankhamon- sobre los orígenes coloniales y elitistas de la arqueología y se propondrán otras maneras de concebirla, y sobre todo de practicarla, en un mundo que necesita de nuevos valores más inclusivos, igualitarios y críticos.



	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Arkeologi Museoa. Mallonako galtzadak, 2	Arkeologi Museoa. Calzadas de mallona, 2.
	Urriaren 9, 16, 23 eta 30ean 11:30ean.	9, 16, 23 y 30 de octubre a las 11:30 h.
Antolatzaile / Organiza: Arkeologi Museoa		
	944040990; arkeologimuseoa@bizkaia.eus - https://ondareabizkaia.eus	
Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas		

HISTORIAN BERZIKLATZEN

Familiantzako tailerra

Tailer honetan ikusiko dugu nola erakusgai dauzkagun objektuek ez duten beti erabilera berbera eduki. Honek erakusten digu mendeetan zehar giza-taldeek erreziklatu eta berrerabili egin dutela, eta, honela, nahi gabe izan bada ere, lurraren baliabideak zaindu dituztela. Bukatzeko, eskulan bat egiteari ekingo diogu. Eguneroko objektu bat erabiliz, arrautza-ontzi bat, beste ezberdin bat lortuko dugu, hazitegi bat, non haziak landatuko ditugun, hauek ernatu, eta azkenik fruituak eskuratu. Laborantza ekologiko bat lortu erreziklatutako materialak erabiliz.

RECICLANDO EN LA HISTORIA

Taller familiar

En el taller veremos cómo los objetos que se exponen en el museo no siempre han tenido la misma utilidad, lo que muestra que a lo largo de los siglos los grupos humanos han reciclado y reutilizado, contribuyendo, sin saberlo, al cuidado de los recursos del planeta. Para finalizar haremos una manualidad donde un objeto cotidiano, una huevera, servirá para obtener otro elemento, un semillero, donde plantaremos semillas que germinarán y terminarán dando sus frutos: Un cultivo ecológico con materiales reciclados.

BILBAO ARTELAN BERREGINEN MUSEOA ETA FIDIAS FUNDAZIOA - MUSEO DE REPRODUCCIONES ARTÍSTICAS Y FUNDACIÓN FIDIAS



15 MINUTU GEHIAGO

Bisitaldi gidatuen osagarri

Gauza asko dira hezkuntza: ezagutza, jakina, baina baita aukerak ere, eta kopiaketa-museoek ederki erakusten dute eredu alderdi hori, kultura herritarren eskura jartzea ere buruan erabiltzen ez zen garai batean jendeari hainbat ezagutza jakinarazteko sortu baitziren museo horiek. Urri osoan, Berreginen Museoak museo-mota horiek gizartearekin duten zeregin hezigarria zabaltzeko konpromisoa hartuko du. Horretarako, 15 minutu gehituko zaizkie programatutako bisita guztiei jendearentzat oraindik ezezaguna den errealitatea ezagutarazteko asmoz.

	Eskakizunen arabera	En función de las solicitudes
	Berreginen Museoa. San Frantzisko kalea 14	Museo de Reproducciones. San Frantzisko Kalea, 14
	Urri osoan; asteartetik larunbatera, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Igandeak 10etatik 14:00etara	Todo el mes de octubre, de martes a sábados de 10:00 a 13:30 y de 16:00 a 19:00. Domingos de 10:00 a 14:00

Antolatzaile / Organiza: Berreginen Museoa. - Museo de Reproducciones Artísticas


944150231 - <https://ondareabizkaia.eus>

Irisgarritasunaren ikuspegitik, bisita taldeak eskatutakora egokituko da. La visita se adaptará, desde el punto de vista de la accesibilidad, a lo solicitado por el grupo. Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

15 MINUTOS AÑADIDOS

Complemento a las visitas guiadas

Educación son muchas cosas. Conocimiento, sí, pero también oportunidades, un aspecto bien ejemplificado por los museos de copias, surgidos para acercar ciertos conocimientos en un tiempo en el que la accesibilidad cultural ni se planteaba. Durante todo el mes de octubre, el Museo de Reproducciones se compromete a difundir la misión educativa para con la sociedad de estas instituciones. Para ello, se añadirán 15 minutos a todas las visitas programadas para dar a conocer una realidad todavía desconocida para el gran público.



	Euskara - Gaztelania	Euskara - Castellano
	Berreginen Museoa. San Frantzisko kalea 14	Museo de Reproducciones. San Frantzisko Kalea, 14
	Urriaren 4an (euskara) eta 25ean (gaztelania), 17:30ean	4 de octubre (euskara) y 25 (castellano) a las 17:30

Antolatzaile / Organiza: Berreginen Museoa - Museo de Reproducciones

944150231 - <https://ondareabizkaia.eus>

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

SAREAK SORTZEN

Bisita hezigarria irakasleentzat

Hezkuntza eta sareko lanarekiko konpromisotik sortutako programa. Hezkuntza-arlo guztietako profesionalen hitza Museoko Hezkuntza Zerbitzuan entzun dadin, eta eskueran dituzten aukera guztiak ezagut ditzaten. Azken buruan, eskola-elkartea sortzeko programa da.

CREANDO REDES

Visita formativa dirigida al profesorado

Un programa concebido desde el compromiso con la educación y con el trabajo en red. Una oferta para que profesionales de todos los ámbitos educativos dejen oír su voz en el seno del Servicio de Educación del Museo y conozcan todas las posibilidades a su alcance. En definitiva, un programa para crear comunidad educativa.



BASTIDA: ARKITEKTURA ZIRKULARRA. RICARDO BASTIDAREN BOST ERAIKIN IKONIKOEN JATORRIA ETA ERABILERA BERRIAK

Bisitaldi gidatua eta erakusketa

BBK Kuna, Garapen Jasangarrirako Helburuen etxeak, 2021eko urrian zabaldu zenak, Ondarearen Europako Jardunaldietan zehar, Ricardo Bastidak proiektatutako eraikina bisitaldi gidatu baten bidez ezagutzeko aukera emango du, eta bisitariak Garapen Jasangarrirako Helburuetara hurbilduko eta helburuok hirian gauzatuko ditu. Halaber, "Bastida: Arkitektura Zirkularra" erakusketa egongo da ikusgai. Erakusketa horren eskutik, arkitektoak proiektatutako eraikinen historia eta horiek denboran zehar izan dituzten erabilera ezagutuko ditugu: Bilboko Alondegia, Castañosko Ikuztegia, Desinfekzio Zentroa, Sukarrietako udalekuetarako eraikina eta Sehaska Etxea.



BASTIDA: ARQUITECTURA CIRCULAR. ORIGEN Y NUEVOS USOS DE CINCO EDIFICIOS ICÓNICOS DE RICARDO BASTIDA.

Visita guiada y exposición

BBK Kuna, la Casa de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) inaugurada en el mes de octubre de 2021 ofrece durante la celebración de las Jornadas Europeas de Patrimonio la posibilidad de visitar de manera guiada el edificio proyectado por Ricardo Bastida, así como acercar al visitante a los Objetivos de Desarrollo Sostenible y su puesta en práctica en la ciudad. Asimismo, se podrá visitar la exposición Bastida: Arquitectura Circular, la cual repasa la historia de edificios del arquitecto y cuyos usos se han transformado con el paso del tiempo: La Alhóndiga de Bilbao, el Lavadero de Castaños, el Centro de desinfecciones y la Colonia de Sukarrieta y la Casa Cuna.



Euskara eta Gaztelania

Castellano y Euskera



BBK Kuna | Garapen Jasangarrirako Helburuen Etxea. Urzurrua kalea 3.

BBK Kuna | La Casa de los Objetivos de Desarrollo-Urazurrutia Kalea, 3.



Urriaren 3tik 31ra bitartean. Erakusketa: 10:00etatik 20:00etara.

3 - 31 de octubre. Visita a la exposición: 10.00 - 20.00 horas. La información sobre las visitas guiadas estará disponible en la web <https://kuna.bbk.eus/>

Bisitaldi gidatuei buruz gehiago jakiteko, jo hona: <https://kuna.bbk.eus/>

Antolatzaile / Organiza: BBK KUNA



Bisitaldi gidatuak bakarrik erreserbatu beharko dira (kuna@bbk.eus - 944152304). Hortaz, erakusketa ikusteko ez da erreserbarik egin beharko.

Las reservas solo serán necesarias para las visitas guiadas kuna@bbk.eus - 944 152 304. Para la visita a la exposición no será necesaria reserva.



Gaztelania	Castellano
Justizia Jauregia. Albia lorategia	Palacio de Justicia. Jardines de Albia
Urriaren 8a eta 22a, larunbatak, 12:00etan	8 y 22 de octubre, sábados, a las 12:00
Antolatzaile / Organiza: Bilbao Bizkaia HARRO	
info@ortzadarrigbt.eus	
https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

BIDAIA BILBAO-BIZKAIKO LGTBIQ KOLEKTIBOAREN HISTORIAN ZEHAR

Bisita gidatua

Bilbao Bizkaia HARROk, kolektiboaren historiari buruzko bisita gidatuak aurkeztuko ditu. Bisitan zehar, dokumentu argitaragabeen zein LGTBIQ mugimendua bizi edota parte hartzen duten pertsonen lekukotasun zuzenen bitartez kolektiboaren historia ezagutuko dugu.

Horretarako guztirako, kolektiboaren historia kronologikoki ezagutu ahaliko dugu bisitarako diseinatu diren geldialdiak esker. Era berean, espazio zehatz batzuetan lesbiana, trans eta pertsona intersexualeen errealitatea ezagutzera emango dira.

VIAJE POR LA HISTORIA DEL COLECTIVO LGTBIQ DE BILBAO-BIZKAIA

Visita guiada

Bilbao Bizkaia HARRO organiza un año más las visitas guiadas sobre la historia del colectivo. Durante la visita explicarán a través de documentos inéditos y testimonios directos acerca de la historia del movimiento LGTBIQ.

Para ello se han definido diferentes paradas que permitirán conocer de forma cronológica la historia de colectivo y conectar directamente con sucesos históricos y con espacios específicos que visibilizan las realidades de las mujeres lesbianas, las personas trans y las intersexuales.



Gaztelania	Castellano
Turismo Bulegoa. Plaza Biribila	Oficina de Turismo. Plaza Circular
Urriaren 9a eta 23a, igandeak, 12:00etan	9 y 23 de octubre, domingos, a las 12:00
Antolatzaile / Organiza: Bilbao Bizkaia HARRO	
info@ortzadarrigbt.eus	
https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

KULTURA, AISIALDIA ETA GIROA

Bisita gidatua

Frankismoak homosexualitatea gogor jazarri zuen; sexu bereko bikoteen arteko maitasun-adierazpenak debekatuak zeuden, batez ere, espazio publikoetan. Honen guztiaren ondorioz, kolektiboko pertsonen euren artean ezagutu ahal izateko, hizkera propioa sortu zuten.

Bisita gidatu hauek dokumentu argitaragabeen eta grabatutako lekukotasunen bitartez, ligatzeko espazioak nola ezartzen eta LGTBIQ pertsonen artean giza-harremanak nola sortzen ziren ezagutaraziko digu. Harreman horietan, aisialdia eta kultura funtsezko elementuak izan dira LGTBIQ mugimenduarentzat.

CULTURA, OCIO Y AMBIENTE

Visita guiada

El franquismo persiguió duramente la homosexualidad prohibiendo cualquier tipo de muestra de afecto entre parejas del mismo sexo y especialmente en espacios públicos. Ello obligó al colectivo a generar un lenguaje propio que permitiese reconocerse entre el conjunto de la sociedad.

La visita guiada mostrará a través de documentos inéditos y testimonios grabados, cómo se establecen espacios para ligar y cómo se generan las relaciones sociales entre personas LGTBIQ. Unas relaciones donde el ocio y la cultura son elementos claves para el movimiento LGTBIQ.



DIVERSITOURS, KULTURARTEKO IBILBIDEAK BILBO ZAHARREAN, SAN FRANTZISKON ETA ZABALAN

DIVERSITOURS. RUTAS INTERCULTURALES EN BILBAO LA VIEJA, SAN FRANCISCO Y ZABALA

Bisitaldi gidatua

DIVERSITOURS ibilbide gidatuak antolatzen dituen hezkuntza- eta komunitate-proposamena da, Bilboko kultura-joritasuna eta aniztasuna erakustea xede duena. Lehengo eta oraingo migrazioen eta kulturarteko bizikidetzaren historia itzaltsua duten auzoetatik ibiltzeko aukera ematen du proiektu horrek. Esperientzia pilotua San Frantzisko, Bilbo Zahar eta Zabala auzoetan egiten da, KOOP SF 34 erakundearen eskutik. Aurretik kulturarteko laguntzaile gisa trebatu diren auzotarren eskutik, ibilbide gidatuak egingo dira bisitariak auzo horien historiarekin eta komunitatearekin, gizarte-, ekonomia- eta kultura-adierazpen anitzekin lotzeko.

Hirian migrazioa eta kultur aniztasuna kontatzeko modu berriak eta haiekiko jarrera berriak sustatzea du helburu proiektuak, jardueran parte hartuko dutenak Bilboko bisita-zirkuituetan agertzen ez diren toki eta esperientzia bizi-bizietara hurbiltzeko.

Ekimen horren asmoa da, hortaz, herritar tolerantia, kritika, inklusio eta kulturartekoen alde egiten duten pertsonak ahalduntzea, baita estereotipo negatiboen, gorroto-arrazoibidearen eta extremismoen gorakada globalaren kontrako borroka laguntza ere. MIGRANTOUR programa europarrean oinarrituta dago esperientzia hori.

Visita guiada

DIVERSITOURS es una propuesta educativa y comunitaria de rutas guiadas para mostrar la riqueza y la diversidad cultural que presenta la ciudad de Bilbao. El proyecto ofrece la oportunidad de pasear por barrios con una significativa historia pasada y presente de migraciones y convivencia intercultural. La experiencia piloto se desarrolla en los barrios de San Francisco, Bilbao La Vieja y Zabala con la participación de la entidad KOOP SF 34. De la mano de vecinas y vecinos, previamente capacitados como acompañantes interculturales, se realizarán rutas guiadas que conectan a las personas visitantes con la historia del barrio, con la comunidad, con la diversidad de manifestaciones sociales, económicas y culturales que se expresan en el territorio.

El proyecto está orientado a fomentar nuevas narrativas y actitudes en torno a la migración y la diversidad cultural en la ciudad, acercando a las personas participantes a lugares y experiencias rebosantes de vida y actividad que a menudo no aparecen en los circuitos de visita a Bilbao.

La iniciativa pretende empoderar a las personas que apuestan por una ciudadanía tolerante, crítica, inclusiva e intercultural, así como contribuir a la lucha contra los estereotipos negativos, el discurso de odio y el auge global de extremismos. Experiencia basada en el programa europeo MIGRANTOUR.



Gaztelania

Castellano



Kiskaltze-labea. Saralegi plaza

Horno de calcinación. Plaza de Saralegi



Urriaren 15ean -larunbata-, 12:00etan. Urriaren 16an -igandea-, 12:00etan. Ordubate eta erdi inguru iraungo du

Sábado 15 y domingo 16 de octubre a las 12:00. horas. Duración aproximada de una hora y media

Antolatzaile / Organiza: Bilboko Udala eta Koop SF 34- Ayuntamiento de Bilbao y Koop SF 34



946756347; tours@koopsf34.org - <https://ondareabizkaia.eus>

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

BILBAO "DIEGO DE AMEZUA" BIZKAIKO ORGANOAREN LAGUNEN ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL ÓRGANO DE BIZKAIA "DIEGO DE AMEZUA"



	Gaztelania	Castellano
	Indautxuko Karmengo eliza. Simon Bolívar 4. Bilbao	Iglesia del Carmen de Indautxu. Simón Bolívar 4. Bilbao
	Urriaren 21ean, 20:00etan.	21 de octubre a las 20:00
Antolatzaile / Organiza: "Diego Amezua" Bizkaiko Organoaren Lagunen Elkartea - Asociación de Amigos del órgano de Bizkaia "Diego Amezua"		

Ez da erreserbatu behar - No es necesaria reserva.

LEKUALDATUTAKO ORGANOAK

Hitzaldia - Kontzertua

Ba al zenekien Bizkaiko organo batzuei bigarren bizitza eman zaiela tokiz aldatu direnean? Lan horiek, teknikoki eta artistikoki zorrotzak direnak, ondare-elementu horiek jasangarritasunaren eredu eder gisa zaintzea ahalbidetu dute. Jarduera honen eskutik, Bizkaiko organo batzuen funtzionamendua eta historia ezagutuko ditugu eta nola lekualdatu ziren jakingo dugu. Halaber, zuzenean entzungo dugu Indautxuko Karmengo organoa, 1967an Bilboko Maristak ikastetxearentzat egin zena.

ÓRGANOS TRASPLANTADOS

Conferencia - Concierto

¿Sabías que hay varios órganos en Bizkaia que han recibido una segunda vida tras ser trasladados? Estas operaciones, técnica y artísticamente exigentes, han permitido preservar estos elementos patrimoniales en un bello ejemplo de sostenibilidad. En esta actividad conoceremos de manera visual el funcionamiento, historia y proceso de traslado de varios órganos de Bizkaia. Podremos además escuchar en directo el órgano de El Carmen de Indautxu, construido en 1967 para el colegio de los Maristas de Bilbao.



	Gaztelania	Castellano
	Begoñako Basilika. Begoñako Andra Maria kalea 38. Bilbao	Basilica de Begoña. Virgen de Begoña 38. Bilbao
	Urriaren 14an, 20:00etan	14 de octubre a las 20:00
Antolatzaile / Organiza: "Diego Amezua" Bizkaiko Organoaren Lagunen Elkartea - Asociación de Amigos del órgano de Bizkaia "Diego Amezua"		

 soinuondarea@gmail.com - <https://ondareabizkaia.eus>

Ez da erreserbatu behar - No es necesaria reserva

ORGANOA, MUSIKA-TRESNA JASANGARRIA

Hitzaldia - Kontzertua

Begoñako Basilikaren organoa -Parisen, 1884an, Cavaillé-Coll etxe entzutetsuak egin zuena- 130 urte baino gehiago daramatza martxan. Ohiz kanpoko urte-kopurua da makina batentzat, eta are ezohikoagoa, zaharkitze programatuaren garaiotan. Jardueraren eskutik, organo horren funtzionamendua eta historia ezagutuko ditugu eta jakingo dugu nola zaharberritu zen artisau-eran 2015ean, eta horretan esku hartu zuten jasangarritasun-irizpideez arituko gara. Halaber, zuzenean entzungo dugu Basilikako organoa.

EL ÓRGANO, INSTRUMENTO SOSTENIBLE

Conferencia - Concierto

El órgano de la Basílica de Begoña, construido en París en 1884 por la prestigiosa casa Cavaillé-Coll, lleva en funcionamiento más de 130 años. Se trata de una cifra poco usual para una máquina, y mucho más en la era de la obsolescencia. En esta actividad conoceremos de manera visual el funcionamiento, historia y proceso de restauración artesanal de este órgano en 2015. Abordaremos los criterios de sostenibilidad implicados en la misma. Además, escucharemos en directo el órgano de la Basílica.



	Gaztelania	Castellano
	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritza	Delegación en Bizkaia del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro
	Urriaren 14an -ostirala-, 17:15ean (3 eta 7 urte bitarteko umeak familiarekin) eta 18:30ean (8 eta 12 urte bitarteko umeak)	14 de octubre, viernes, 17:15 (niños y niñas de 3 a 7 años con familia) y 18:30 (niños y niñas de 8 a 12 años)
Antolatzaile / Organiza: EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak / Delegación en Bizkaia del COAVN		
	kultura.bizkaia@coavn.org - https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

EKOSISTEMAK

Arkitekturari buruzko tailer familiarra

Garapen Jasangarrirako Helburuak dira gure hiriko ekoistemez eta arkitekturak planetaren jasangarritasunari laguntzeko duen gaitasunaz hausnartzeko ildo nagusia. GJHak, liburu irudiztatuek eta tresna berezidun sortze-jarduerak dira tailerraren osagaiak.

ECOSISTEMAS

Taller familiar de arquitectura

Los Objetivos de Desarrollo Sostenible son nuestro hilo conductor para reflexionar sobre los ecosistemas urbanos que vivimos y la capacidad de la arquitectura para colaborar en la sostenibilidad del planeta. Las ODS, libros ilustrados y actividades creativas con herramientas singulares, son los ingredientes del taller.



	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Hilak, 21 1. Ibilbidea (La Concordia geltokia - Moyua plaza) gaztelaniaz 17:00etan 2. Ibilbidea (Moyua plaza - BBAA museo) gaztelaniaz 18:45ean.	Día 21. - Ruta 1 (Estación La Concordia - Plaza Moyua) castellano a las 17:00 - Ruta 2 (Plaza Moyua - Museo BBAA) castellano a las 18:45
	Hilak, 22 1. Ibilbidea (La Concordia geltokia - Moyua plaza) 10:30ean. 2. Ibilbidea (Moyua plaza - BBAA museo) elebiduna 12:15ean.	Día 22. - Ruta 1 (Estación La Concordia - Plaza Moyua) bilingüe a las 10:30 - Ruta 2 (Plaza Moyua - Museo BBAA) bilingüe a las 12:15.
Antolatzaile / Organiza: EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak / Delegación en Bizkaia del COAVN		
	kultura.bizkaia@coavn.org - https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

BIZKAIKO MUGIMENDU MODERNOAREN ONDARE ARKITEKTONIKOA

Bisitaldi gidatuak

Bisitaldi gidatuak hainbat hiri-arkitektura eta ingurunetara, horien balioak XX. mendeko kultur ondarearen parte baitira eta horiek zaintzeari esker, Bizkaiko arkitekturaren historia eraiki daiteke.

Ibilbide batzuen bitartez, arkitektura modernoaren ezaugarriak ezagutzeko aukera izango da, eta haren forma garbi eta soilek bizi garen hiri modernoak itxuratzen dituzten material eta bolumenen presentzia areagotzen dute.

EL LEGADO ARQUITECTÓNICO DEL MOVIMIENTO MODERNO EN BIZKAIA

Visitas guiadas

Las diferentes arquitecturas y entornos urbanos forman parte del patrimonio cultural del siglo XX y su conservación permite la construcción del relato de la historia de la arquitectura de Bizkaia.

A través de diferentes rutas se podrán comprender las características de la arquitectura moderna cuyas formas limpias y sencillas acentúan la presencia de los materiales y los volúmenes que dan forma a las urbes modernas en las que habitamos.



	Gaztelania	Castellano
	Euskadiko Artxibo Historikoa	Archivo Histórico de Euskadi
	Urriaren 6an 19:00etan	6 de octubre a las 19:00
Antolatzaile / Organiza: Euskadiko Artxibo Historikoa. Eusko Jaurilaritza Archivo Histórico de Euskadi. Gobierno Vasco		
	944032787; eah-ah@euskadi.es - https://ondareabizkaia.eus	

Sarrera doan edukiera bete arte
Entrada libre hasta completar aforo

AGIRITEGIETAKO INFORMAZIOA: EGIA JAKITEKO ESKUBIDEA VERSUS AHAZTEKO ESKUBIDEA?

Hitzaldia

Agiritegieta sarbide osoa izateak askotariko interpretazioak dauzka oraindik. Historia Garaikidean doktore, ikertzaile eta artxibozain Sergio Gálvezek, 16.10. GJHa ("Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea...") oinarri hartuta, kontu horren egoera aurkeztuko digu, eta krimen frankisten biktimek egia jakiteko eskubide besterenezina izan dezaten egin diren ahaleginez eta oraindik egin gabe daudenez arituko zaigu.

INFORMACIÓN EN LOS ARCHIVOS: ¿DERECHO A LA VERDAD VERSUS DERECHO AL OLVIDO?

Conferencia

El pleno acceso a los archivos sigue constituyendo una cuestión sujeta a múltiples interpretaciones; Sergio Gálvez, Doctor en Historia Contemporánea, investigador y archivero, partiendo del ODS 16.10 "Garantizar el acceso público a la información y proteger las libertades fundamentales...", nos presentará el estado de la cuestión, los esfuerzos realizados y pendientes de llevar a cabo para que las víctimas de los crímenes franquistas puedan acceder al inalienable Derecho a la Verdad.



	Gaztelania	Castellano
	Maria Diaz Haroko kalea 3.	Mª Díaz de Haro, 3.
	Urriaren 7an, 12:00etan eta 18:00etan	7 de octubre, a las 12:00 y 18:00
Antolatzaile / Organiza: Euskadiko Artxibo Historikoa. Eusko Jaurilaritza / Archivo Histórico de Euskadi. Gobierno Vasco		
	944032787; eah-ah@euskadi.es - https://ondareabizkaia.eus	

INFORMAZIOAREN ITZALAK - ARTXIBOAREN ARGIAK

Antzerti-formako bisita gidatua

Gure historiaren pasarte batzuk oraindik argi-ilunpetan daude. Izan ere, hainbat agiriren informazioa eskuratzeko zailtasunak daude oraindik. Zenbaitetan, dokumentazioa Estatuko erakundeetan sakabanatuta dago, eta beste batzuetan, frankismo garaiko sekretu ofizialen legea oztopoa da informazioa lortzeko. Horren adibide dira Gerra Zibilaren pasarte batzuk. EAhtik bisita egingo dugu pertsonaia batzuen laguntzarekin, zer gertatu zen jakiteak duen garrantzia jakinarazteko.

LAS SOMBRAS DE LA INFORMACIÓN - LAS LUCES DEL ARCHIVO

Visita guiada teatralizada

Todavía hay claroscuros en algunos pasajes de nuestra historia. Aún hoy existen dificultades para acceder a la información de algunos documentos. En algunos casos, la documentación se halla dispersa entre diferentes instituciones del Estado, y en otros, la ley sobre secretos oficiales del franquismo es un obstáculo para conseguir la información. Ejemplo de ello son algunos episodios de la Guerra Civil. Haremos una visita guiada al Archivo Histórico de Euskadi con la ayuda de algunos personajes, para sacar a la luz la importancia de saber qué ocurrió.

BILBAO - EUSKAL MUSEOA-MUSEO VASCO



	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Euskal Museoaaren sarrera (Unamuno plaza)	Entrada del Euskal Museoa (plaza Unamuno)
	Urriaren 19an eta 26an, 18:00etan	19 y 26 de octubre 18:00
Antolatzaile / Organiza: Euskal Museoa		
	944150231 - https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas.

BELAUNALDIARTEKOA

Bisitaldi gidatua

Hainbat eta hainbat aldiz entzun ditugu, familiarekin paseatzen ari garela, honelako galderak: Ba al zenekien toki honetan plaka bat dagoela 1983ko uholdeetan ura noraino iritsi zen markatzeko? Ba al zenekien etxe honetan "Pichichi" jaio zela? "Belaunaldiarartekoa" delakoak ezagutza kolektibo guzti hori aprobetxatu nahi du batasun familiar eta sozialaren memoria eta lotura gisa. Gure buruak ezagutzea, ingurukoak ezagutzea eta gure ingurua ezagutzea baitira gure etorkizuna eraikitze modurik onena.

INTERGENERACIONAL

Visita guiada

Cuántas veces nos ha pasado que según paseábamos con nuestra familia hemos tenido que escuchar cosas como: ¿Sabías que en este lugar hay una placa para marcar hasta dónde llegó el agua en las inundaciones del 83? ¿Sabías que en esta casa nació Pichichi? Intergeneracional quiere aprovechar todo ese conocimiento colectivo como memoria y vínculo de unión familiar y social. Porque conocernos, conocer a los que nos rodean y conocer nuestro entorno es el mejor modo de construir nuestro futuro.

BILBAO EUSKALTZAINDIA



	Euskara	Euskera
	Euskaltzaindiaren egoitza (Plaza Barria 15, Bilbao).	Euskaltzaindiaren egoitza (Plaza Barria 15, Bilbao)
	Urriaren 19an eta 26an -asteazkenak-, 19:00etan	Miércoles 19 y 26 de octubre a las 19:00
Antolatzaile / Organiza: Euskaltzaindia		
	info@euskaltzaindia.eus - 944158155 - https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas limitadas

TRADIZIOAREN KATEA

Hitzaldiak

Ahozko eta idatzizko tradizioaren iraupena eta transmisioa oso garrantzitsuak dira euskal kulturari. Bi adibide jasoko ditugu hemen, bi hitzalditan: batetik, balada tradizional batena, Benito Lertxundik kantatzen zuen Ozaze Jaurganean; bestetik, Toponimia tradizioaren transmisiorako tresna gisa aztertzea. Biak interesgarri eta jakingarriak:

J. Kaltzakorta: "Ozaze Jaurganean balada: nork, noiz, nola". Urriak 19.

M. Gorrotxategi: "Toponimia tradizioaren transmititzaile". Urriak 26.

LA CADENA DE LA TRADICIÓN

Charlas

La conservación y transmisión de la tradición oral y escrita son muy importantes en la cultura vasca. De la mano de dos charlas, recogeremos dos ejemplos de ello: por un lado, una balada tradicional, Ozaze Jaurganean, que cantaba Benito Lertxundi; por otro, un análisis de la toponimia como herramienta de transmisión de la tradición. Ambas, interesantes y dignas de conocerse:

J. Kaltzakorta: "Ozaze Jaurganean balada: nork, noiz, nola". 19 de octubre

M. Gorrotxategi: "Toponimia tradizioaren transmititzaile". 26 de octubre



ZORROTZAURRE ETA 2030 AGENDA

Ibilbide argitzailea

Ibilbidea Zorrotzaurre Irlako zati batean barrena, iragana, oraina eta geroa azaltzeko; azalpena NBERen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetako batzuekin lotuko da. 8 geldialdi argitzaile, zeinetan 2030 Agendaren 8 Helburu Zorrotzaurre Irlako (lehen, penintsula) hainbat alderdirekin lotuko diren: egoerak, gertakari historikoak, paisaiaren aldaketa, etorkizuneko plangintzak, ... 2,2 kilometroko ibilbidea.

ZORROTZAURRE Y AGENDA 2030

Itinerario explicativo

Recorrido a través de un tramo de la Isla de Zorrotzaurre, en la que se va a explicar pasado, presente y futuro, enlazándolo con algunos de los 17 objetivos de desarrollo sostenible de la agenda 2030 de la ONU. 8 paradas explicativas en las que se enlazarán 8 de los objetivos de la Agenda 2030, con diferentes situaciones, hechos históricos, cambios en el paisaje, planeamientos futuros... de la antes península y ahora Isla de Zorrotzaurre. 2,2 km totales de recorrido.

Euskara - Gaztelania	Euskara - Castellano.
IMQ Zorrotzaurre klinikatik abiatuko da ibilbidea, hain zuzen, aparkalekuaren sarreratik, Azkunaren iruditik) Erribera 60 (Yolanda González plazatxo) kaleraino	Recorrido semi accesible desde el IMQ (entrada del parking, donde está la efigie de Azkuna) hasta Calle Ribera 60 (Plazuela Yolanda González)
Urriaren 15ean, larunbata, 11:00etan (gaztelaniaz) eta 17:00an (euskaraz) eta Urriaren 22an, 11:00etan (euskaraz) eta 17:00etan (gaztelaniaz)	15 de octubre, sábado, a las 11:00 (castellano) y a las 17:00 (euskera) y 22 de octubre, sábado, a las 11:00 (castellano) y 17:00 (euskera)

Antolatzaile / Organiza: Fekoer

WhatsApp bidez (691289314) egingo da erreserba, eskaera-hurrenkeraren arabera - La reserva efectiva se realizará a través del whatsapp (691289314) por orden de solicitudes.

Ibilbideak iragarritasun gutxiko punturen bat du, baina laguntza emango da. Keinu-hizkuntzaren eta erliebeo irudien interpretea izango da itsuentzat. El recorrido cuenta con algún punto poco accesible pero se dará apoyo. Se contará con intérprete de lengua de signos e imágenes a relieve para personas ciegas. Leku-kopuru mugatua- Plazas limitadas



	Gaztelania	Castellano
	Bilboko Institutu Txinatarra. (Berastegi kalea 5, 4.ezk.)	Instituto Chino de Bilbao (C/ Berástegui, 5, 4º izda.)
	Urriaren 8an -larunbata-, 11:00etatik 13:30era	Sábado 8 de octubre de 11:00 a 13:30
Antolatzaile / Organiza: Bilboko Institutu Txinatarra / Bilboko Institutu Japoniarra. Instituto Chino de Bilbao / Instituto Japonés de Bilbao		
	info@institutochinodebilbao.com - info@institutojaponesdebilbao.com	
	944255131 / 696869171 - https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatua - Plazas Limitadas

ETORKIZUNEN HIZKUNTZAK

Hitzaldi partizipatiboa

2030 Agendaren 4/4.4. Helburuaren esparruan "Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea", hizkuntza-tailer bi egitea proposatzen dugu, txineraz eta japonieraz, parte-hartzaileak hizkuntza horietara hurbil daitezzen 90 minutuko saio batean. Eta 30 minutu gehiago emango ditugu ikasitako esamoldeak eta esaldiak antzetzten, bi hizkuntzak biziki bizi izateko. Amaitzeko, bi herrialdeetako janaurrekoak jango ditugu.

LOS IDIOMAS DEL FUTURO

Charla participativa

En el marco del objetivo: 4/4.4 de la Agenda 2030: "Garantizar una Educación inclusiva y equitativa de calidad, y promover oportunidades de aprendizaje permanente para todos" Proponemos realizar dos talleres idiomáticos: uno de chino y otro de japonés, con el objetivo de acercar a los participantes a cada uno de estos idiomas en una sesión de 90 minutos. Dedicaremos 30 minutos más para escenificar y poner en práctica de una forma teatralizada, las expresiones y frases aprendidas y, así, poder 'vivir' los dos idiomas de una forma activa. Finalizaremos el evento con un aperitivo tradicional de ambos países.

BILBAO LU XUN TXINATAR IKASKETEN ZENTROA - CENTRO DE ESTUDIOS CHINOS LU XUN



	Gaztelania	Castellano
	Lu Xun Txinatar Ikasketen Zentroa (Hurtado de Amézaga kalea 3, 1.ezk.)	Sede del Centro de Estudios Chinos Lu Xun (C/Hurtado de Amézaga, 3, 1-izq. Bilbao)
	Urriaren 1ean, 11:00etatik 13:00etara	1 de octubre de 11:00 a 13:00
Antolatzaile / Organiza: Txinatar Ikasketen Lu Xun Elkarte - Asociación de Estudios Chinos Lu Xun		
	https://ondareabizkaia.eus	

Leku-kopuru mugatuak - Plazas limitadas

TXINAKO JAI TRADIZIONALAK

Hitzaldia

Jaiak kulturen parte garrantzitsuak dira. Hitzaldi bat antolatu dugu Txinako jai tradizionalen buruz, batez ere, nabarmenari buruz, Txinako Urte Berriaz. Jaiaren jatorriaz, kondairez, ohiturez, janari tipikoez eta jaien garapenez arituko gara, eta Euskal Herriko jai tradizionalen alderatuko ditugu.

FIESTAS TRADICIONALES DE CHINA

Conferencia

Las fiestas son una parte importante de cada cultura. Organizamos una conferencia sobre las fiestas tradicionales de China, especialmente la más importante: el Año Nuevo Chino, sobre su origen, leyendas, costumbres, comidas típicas y su desarrollo, comparando con las fiestas tradicionales del País Vasco.



ITSASOAREN OSASUNA: ITSAS ZINEMA IKUSGARRI ETA JASANGARRIA

Zinema-zikloa eta mahai ingurua

Ingurumena eta, bereziki, itsas ingurunea babestearen aldeko apustuan, Itsasmuseum Bilbaok jasangarritasunari heltzen dio eta zinema-ziklo bat proposatzen du ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik, itsasoari lotutako filmen eskutik.

Proiektzio bakoitzaren ondoren, mahai-inguru bat egingo da zientzia-, kultura- eta kirol-munduko pertsona ospetsuekin.

Egitaraua:

- Santuario, Álvaro Longoria, 2019. Urriaren 5ean 19:00etan
- Hondar 2050, Cesare Maglioni, 2018. Urriaren 19an 19:00etan

LA SALUD DEL MAR: CINE MARINO ESPECTACULAR Y SOSTENIBLE

Ciclo de cine y mesa redonda

En su apuesta por la protección del medio ambiente y especialmente del medio marino, Itsasmuseum propone la proyección de audiovisuales que aborden la sostenibilidad desde el punto de vista económico, social y medioambiental, con películas vinculadas a la mar.

Tras cada proyección se celebrará una mesa redonda con personas referentes en el mundo científico, cultural y deportivo.

Programa:

- Santuario, Álvaro Longoria, 2019. 5 de octubre a las 19:00 horas
- Hondar 2050, Cesare Maglioni, 2018. 19 de octubre a las 19:00 horas

 Euskara - Gaztelania (filmaren arabera).

 Itsasmuseum Bilbaoko ataria.

 Urriaren 5ean eta 19an, aztezenak 19:etan.

Antolatzaile / Organiza: Itsasmuseum Bilbao

 46085500 - <https://ondareabizkaia.eus>

Euskera - Castellano (según película)

Itsasmuseum Atrio

5 y 19 de octubre, a las 19:00

BILBAO ITSASMUSEUM



ITSASOEN OSASUNA

Bisitaldi gidatua erakusketara eta umeentzako tailerra

Itsasmuseumek ingurumenari eta itsas jasangarritasunari eskainitako gune berri bat du: Itsasoen Osasuna, itsas ekosistemaren degradazioa ikusarazteko gune espezifikoak. Problematika modu positiboan jorratzeko, museoak familiei zuzendutako bisita gidatua eskaintzen du gune horretara, eta, ondoren, 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzako tailer bat. Beharrezkoa da alde zuzeneko erreserbatzea.



SURFING EUSKADI ERAKUSKETA

Bisitaldi gidatua eta umeentzako tailerra

Surfing Euskadi gure surfaren historian zeharreko bidaia da. Besteak beste, tokiko industriaren garapena, komunikabide espezializatuak, iragarkiak eta kirol horri lotutako artea jorratzen ditu. Bertan murgiltzeko, Itsasmuseumek familiarteko bisita gidatua proposatzen du eta ondoren umeentzako Surfing Itsasmuseum tailerra (8 -12 urte). Aurretiko izen-ematea beharrezkoa izango da.

	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Itsasmuseum	Itsasmuseum
	Urriaren 1ean eta 2an 11:30ean	1 y 2 de octubre a las 11:30
Antolatzaile / Organiza: Itsasmuseum Bilbao		
	94 608 55 00 - https://ondareabizkaia.eus	

LA SALUD DE LOS OCÉANOS

Visita guiada a la exposición y taller infantil

Itsasmuseum cuenta con un nuevo espacio dedicado al medioambiente y la sostenibilidad marina: La salud de los océanos, una zona específica dedicada a la visibilización de la degradación del ecosistema marino. Con el fin de abordar la problemática en clave positiva, el museo ofrece una visita guiada en familia a este espacio y un posterior taller infantil para menores de entre 4 y 11 años. Necesaria reserva previa.

	Euskara - Gaztelania	Euskera - Castellano
	Itsasmuseum	Itsasmuseum
	Urriaren 29an eta 30ean 11:30ean (bisita gidatua) eta 12:00etan (tailerra)	29 y 30 de octubre a las 11:30 (visita guiada) y a las 12:00 (taller)
Antolatzaile / Organiza: Itsasmuseum Bilbao		
	94 608 55 00 - https://ondareabizkaia.eus	

EXPOSICIÓN SURFING EUSKADI

Visita guiada y taller infantil

La exposición Surfing Euskadi es un viaje por la historia de nuestro surf que aborda este deporte desde diferentes ámbitos como el arte, los audiovisuales, la industria local o la sostenibilidad. Para sumergirse en él, Itsasmuseum propone una visita guiada en familia a la exposición, y, a continuación, la realización del taller infantil Surfing Itsasmuseum (de 8 a 12 años). Requiere inscripción previa.



ANIZTASUNAREN IBILDIA PIRAGUAN

Urriaren 18a Natura Babesteko Munduko Eguna da, eta, hori ospatzeko, urriaren 16an -igandea-, 12:00etan, Ondarearen Europako Jardunaldien esparruan, Itsasmuseum Bilbaok ur-jarduera hori antolatuko du, Bilbobenturarekin batera.

Ibilaldia piraguaz, Itsasadarraren bilakaerara ikuspegi positibo batetik hurbiltzeko, azken urteotan fauna eta flora biziberritu izana nabarmenduta, aditu baten azalpenen eskutik.

*Leku-kopuru mugatua (25 leku), eta alde zuretik erreserbatu behar da. Antolatzaileak jarduera bertan behera uzteko eskubidea izango du, gutxienez toki-kopurua betetzen ez bada.

PASEO DE LA DIVERSIDAD EN PIRAGUA

El 18 de octubre es el Día Mundial de la Protección de la Naturaleza, y para celebrarlo, el domingo 16 de octubre a las 12:00 horas, en el marco de la Jornadas Europeas de Patrimonio, Itsasmuseum organiza una esta actividad acuática junto a Bilbobentura.

Una salida en piragua, que quiere acercar la evolución de la Ría desde una visión positiva, destacando la recuperación de la fauna y la flora alcanzada en los últimos años, a través de las explicaciones de una persona experta.

*Plazas limitadas, (25 plazas) necesaria reserva previa. La organización se reserva el derecho a cancelar la actividad si no se reserva un mínimo de plazas.



Itsasmuseum



Urriaren 16an, igandea, 12:00etan

Itsasmuseum

Domingo 16 de octubre a las 12:00

Antolatzaile / Organiza: Itsasmuseum eta Bilbobentura - Itsasmuseum y Bilbobentura



946085500 - <https://ondareabizkaia.eus>



EMILIO CAMPUZANO, ONDARE IREKIA, JASANGARRITASUNEAN HEZTEN

Bisitaldi gidatua

Ibilbide bat egingo da ikastetxetik; izan ere, lehenengo eta bigarren solairuetan ikastetxearen historiari buruzko garai bateko argazkien erakusketa bat dago. Zuzendariaren bulegoa bisitatuko da, bertako altzariei eta elementuei erreparatzeko: jatorrizko altzariak, atondoko Barrueta margolanak, eskulturak eta beste elementu interesgarri batzuk, zurezko eskailera baten maketa, zurezko eserlekuak, 1910ekoak, Bastidak diseinatu zuen ekitaldi-aretoak. Halaber, Arte Grafikoen tailerrak, Fabrikazio Mekanikokoak eta beste toki batzuk ere, zeinetan ikastetxearen bilakaera egiaztatzen den. Aldi baterako erakusketa ere egongo da: agiriak, liburuak, zigiluak, maketak eta hainbat sailetako materialak, ikastetxeko artxibokoak, ikusgai jarriko dira. Kartel-erakusketa ere egongo da: ikasleek, irakasleek eta pertsonal ez irakasleek 21-22 ikasturtean Garapen Jasangarriarako Helburuei buruz egindako proiektuak eta lanak ikusgai jarriko dira (Zero Covid Gela; Ondarea Ezagutzen; Paper jokoa; Euskelec; Zaharberritzea, Valores 4.0 Balioak; Eraikin Konektatuak, Bitartekotza eta Errealitate Birtualeko Betaurrekoak).

EMILIO CAMPUZANO, PATRIMONIO ABIERTO, EDUCANDO EN LA SOSTENIBILIDAD

Visita guiada

